

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

ESTILOAK ETA ESTRATEGIAK HIZKUNTZEN IKASKUNTZAN ETA IRAKASKUNTZAN: DIAGNOSTIKOA ETA PROPOSAMENA

Egilea: Josu Bilbao Villasante

Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta

Leioan, 2018ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. SARRERA | 3 |
| 2. MARKO TEORIKOA..... | 4 |
| 2.1. Ikas-estiloak zer diren eta zer ikas-estilo mota dagoen | 4 |
| 2.2. Ikas-estrategiak zer diren eta zer ikas-estrategia mota dagoen..... | 6 |
| 2.3. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak EEBMn | 7 |
| 2.4. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak hezkuntza dekretuetan: 175/2007 Dekretua eta 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea... 8 | |
| 2.5. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak nola landu izan diren..... | 10 |
| 2.6. Ikas-estrategiak eta <i>ikasle ona</i> | 11 |
| 3. DIAGNOSTIKOA | 12 |
| 3.1. Sortzeko prozedura | 12 |
| 3.2. Parte-hartzaileak | 13 |
| 3.3. Emaitzak | 14 |
| 4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA..... | 18 |
| 4.1. Ezaugarriak | 19 |
| 4.2. Sortzeko prozedura | 20 |
| 4.3. Lantzen diren 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileko konpetentziak, edukiak eta helburuak | 21 |
| 4.4. Erabilera..... | 24 |
| 5. ONDORIOAK..... | 24 |
| 6. BIBLIOGRAFIA..... | 25 |
| ERANSKINAK | 27 |
| 1. TAULAK..... | 28 |
| 2. GRAFIKOAK..... | 38 |
| 3. GALDETEGIA..... | 40 |

ESTILOAK ETA ESTRATEGIAK HIZKUNTZEN IKASKUNTZAN ETA IRAKASKUNTZAN: DIAGNOSTIKOA ETA PROPOSAMENA

Josu Bilbao Villasante

UPV/EHU

Azken urteotako hamaika ikerketak adierazi duenez, norberaren ikas-estiloak eta erabiltzen diren ikas-estrategiek zeresan handia dute hizkuntzen ikaskuntza prozesuan. Hainbat autorek ikas-estiloak nahiz ikas-estrategiak definitu eta sailkatu egin ditu. Era berean, beroriek irakasteko metodoak eta *ikasle ona* ere aztergai izan dira. Gurera etorrita, atzeman daiteke Europako Erreferentzi Marko Bateratuak eta euskal curriculumak ikas-estrategiak beren baitan hartzen dituztela. Arestian aipatutako guztia kontuan izanik, lan honetan ikasle-talde baten ikas-estiloak eta ikas-estrategiak aztertu dira eta ondorioztatu egin da ikasleek jolastuz eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliz ikastea atsegin dutela. Azkenean, hizkuntza-gaitasuna hobetzeko jolasak biltzen dituen webgunea sortu da eta, tartean, ikus-entzunezko baliabideak txertatu dira.

Ikas-estiloak, ikas-estrategiak, hizkuntza, berrikuntza, jolasa

Tal y como señalan recientes investigaciones, el estilo de aprendizaje de uno/a mismo/a, así como las estrategias de aprendizaje que se emplean, juegan un papel transcendental en el proceso de aprendizaje de un idioma. Diversos autores han definido y clasificado los estilos y las estrategias de aprendizaje. Asimismo, también se han desarrollado propuestas metodológicas para la enseñanza de los mismos o se ha investigado acerca de *el/la buen/a estudiante*. A nivel local, cabe destacar que el Marco Común Europeo de Referencia y el currículum educativo vasco también tratan las estrategias de aprendizaje. Por todo lo anterior, en este trabajo se han analizado los estilos y las estrategias de aprendizaje de un grupo de alumnos/as, llegando a la conclusión de que al alumnado le gusta aprender jugando y mediante recursos audiovisuales. Finalmente, se ha desarrollado una página web con juegos para mejorar la capacidad lingüística y se han incluido en ella diversos recursos audiovisuales.

Estilos de aprendizaje, estrategias de aprendizaje, lenguaje, innovación, juego

According to many recent researches, each one's learning style, as well as the learning strategies employed, play a key role on the process of learning a new language. These learning styles and strategies have been defined and classified by several authors. Moreover, different methods aimed at developing them both, altogether with the figure of the *good language learner*, have been closely examined. On a local level, both the European Common Reference Framework and the Basque educative curriculum focus on learning strategies. Based on what has been exposed, the learning styles and strategies of a group of students have been analysed in this project, reaching the conclusion that students prefer to learn through games and audio-visual resources. Finally, a website containing language skill reinforcing games has been developed.

Learning styles, learning strategies, language, innovation, game

1. SARRERA

Jakina denez, ikasle guztiek ez dituzte hizkuntzak berdin ikasten. Ikasle askori ez zaio batere kostatzen hizkuntzak ikatea eta beste askok, ordea, zailtasun handiak izaten dituzte. Zenbait autorek ikas-estiloen eta ikas-estrategien eginkizuna azpimarratzen dute hizkuntza-gaitasuna hobetzerako orduan. Adibidez, Oxford-ek (2003a) dio ikas-estrategiak erabilgarriak izan daitezkeela hizkuntzak ulertzeko, barneratzeko eta ikasteko. Ildo beretik, hauxe esan zen: “An efficient growth of knowledge inside and outside of school is only possible if students have skills which initiate, guide and control the search for information and later on its processing and storage. In learning and teaching research those techniques are called learning strategies.” (Wegner, Minnaert eta Strehlke, 2013)

Norberaren ikas- eta irakas-esperientziatik abiatuta, esan beharra dago hizkuntzak beti irakatsi izan direla era gidatu eta teorikoan. Hala, komunikazioari eta gozamenari baino gehiago gramatikari eta hizkuntzaren ezaugarri formalei eman izan zaie garrantzia. Dena den, aldatzen hasia den joera da hori eta, azkenaldian, hizkuntzaren balio komunikatiboa baloratzen ari da gehiago.

Azken urteotan puri-purian dagoen gaia denez, makina bat autorek ikas-estiloak eta ikas-estrategiak ikergai izan ditu. Eta lan honetan ere ikas-estiloak eta ikas-estrategiak dira hizpide, baina ukitu berritzailea emate aldera, eremu teorikoa eta egoeraren diagnostikoa garatu ez ezik, jolas-jarduerak biltzen dituen proposamen didaktikoa ere aurrera eramana da. Beraz, berrikuntza motako GrAL da hau.

Beheko lerroetan ageri den lanaren helburu nagusiak Lehen Hezkuntzako ikasleen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak aztertzea eta beroriei egokitutako proposamen didaktikoa egitea dira. Horretarako, diagnostikoa egin da Bilboko zentro kontzertatu bateko 10-13 urte bitarteko 104 ikaslerekin. Gainera, zenbait ondorio atera dira ikerketako datuetan oinarrituta, hizkuntza lantzeko jolasak biltzen dituen webgunea sortzeko balio izan dutenak.

Jugar no es sólo divertido, es consustancial a la naturaleza humana. Desde muy antiguo, el juego ha estado presente en todas las culturas y sociedades. Para los etólogos representa un elemento ontogenético del ser humano que, además, es compartido por todas las especies superiores (Perinat, 1980), lo que muestra el valor adaptativo que representa especialmente en la fase de desarrollo de los sujetos de una especie.

(Gértrudix eta Gértrudix, 2013)

2. MARKO TEORIKOA

Ondoren, ikas-estiloen eta ikas-estrategien inguruko informazio teorikoa eskaintzen da. Lehenengo bi puntuetan, ikas-estiloen eta ikas-estrategien buruzko definizioak eta sailkapenak bildu dira makina bat autoreren ekarpenak jasota. Hurrengo bi puntuetan, euskal curriculumak eta Europako Erreferentzi Marko Bateratuak (EEMBK) ikas-estiloen eta ikas-estrategien inguruan diotena bildu da. Azken aurreko atala ikas-estiloak eta ikas-estrategiak irakasteko erei buruz ari da. Eta azken atalak ikasle ona zer den eta zer ezaugarri eduki ohi dituen azaltzen du, zenbait adituren ikerketetan oinarrituz.

2.1. Ikas-estiloak zer diren eta zer ikas-estilo mota dagoen

Pikabea-k (2002) adierazi bezala, zenbait autorek ikas-estiloa eta estilo kognitiboa berdinak direla diote; beste autore asko, ordea, ez datoz bat iritzi horrekin eta bereizi egiten dituzte. Autore berak zitatutako Oxford-en (1990) arabera, estilo kognitiboak osagai kognitiboak baino ez ditu hartzen bere baitan. Ikas-estiloa, ordea, alderdi ez-kognitiboak ere jasotzen dituen kontzeptua da, askoz zabalagoa; beraz, ikas-estiloak estilo kognitiboa bere barnean hartzen du.

Ikas-estiloak definitzeko Pikabea-k (2002) bere egin zituen Keefe-ren (1988) hitzak: “Ikas-estiloak ezaugarri kognitibo, afektibo eta fisiologikoak dira. Ezaugarriok adierazle iraunkor samarrak dira eta adierazten digute ikasleek ikaskuntza egoeretan nola bizi, elkarreragin eta erantzuten duten.” (Pikabea, 2002: 60)

Geroago, Alonso, Gallego eta Honey (1994) ikas-estiloen hiru ezaugarriei buruz aritu ziren:

Ezaugarri kognitiboen barruan lau alderdi azpimarra daitezke:

- Landaz mendekoa – Landaz askea: Landaz mendekoez ikuspegi zabala dute eta zaila suertatzen zaie elementu bat bere testuingurutik bereiztea. Gainera, ordena, gidaritza, hartu-emanak eta lankidetzak atsegin dituzte. Aitzitik, landaz askeek berezko gaitasuna dute garrantzizko eta azaleko gauzak bereizteko, baita arazoei aurre egiteko ere. Bestalde, garrantzirik ez diete ematen ordenari eta harremanei eta nahiago dute lanean bakarrik aritu.
- Kontzeptualizazioa – Kategorizazioa: Kontzeptualizazioa nahiago dutenek analizatu eta deskribatu egiten dute eta kategorizazioa nahiago dutenek, ordea, kontzeptuen arteko loturak ezartzen dituzte.

- Zuhurtzia – Oldarkortasuna: Zuhurrak ez dira arriskatzen; oldarkorrek, aldiz, bai.
- Zentzumenak: Bisuala/ikonikoa – Auditiboa/sinbolikoa – Zinetikoa/ez-aktiboa: Bisualek pentsamendu espaziala izan ohi dute; auditiboek, pentsamendu berbala; eta zinetikoek, pentsamendu motorikoa.

Bestalde, ezaugarri afektiboak ere erabakigarriak izan daitezkeela adierazi zuten. Izan ere, motibazioak, espektatibek, esperientziak, gaiak eta beste zenbait alderdik norberaren ikaskuntza-prozesua baldintza dezakete.

Azkenik, ezaugarri fisiologikoak daude, neurofisiologia ikerketekin lotura estua dutenak.

Behin ikas-estiloak zer diren eta zer ezaugarri dituzten garbi utzita, ikas-estiloen sailkapenari buruz mintzatu beharra dago. Ugari dira ikas-estiloen inguruan topa daitezkeen sailkapenak, baina ezagunena Kolb-ek (1984) egin zuena da (2002an Pikabeak aipatua). Hartara, lau ikas-estilo definitu zituen:

- Dibergentea: Esperientzian eta behaketan oinarritzeaz gain, oso irudimentsua ere bada.
- Asimilatiboa: Behaketa gogoetatsua eta kontzeptualizazioa erabiltzen ditu eta arreta berezia eskaintzen die zehaztasunari eta logikari.
- Konbergentea: Kontzeptualizazioa eta esperientziazioa ditu euskarri. Gainera, erabakitzailea, praktikoa eta arazo-konpontzailea da.
- Egokierraza: Esperientziazioan eta esperientzian oinarritzen da eta praktikoa eta berritzailea da.

Halaber, makina bat autorek kontrajarriak diren bikoteetan sailkatu zituzten ikas-estiloak eta Perales-ek (2003) guztiak taula batean jaso zituen. (Ikus 1. eranskineko I. taula)

Garbi dago, beraz, ugari izan direla ikas-estiloak sailkatzeko bideak. Alabaina, honako lan honetan Wong-ek eta Nunan-ek (2011) ‘The learning styles and strategies of effective language learners’ ikerketa-lanean erabilitako sailkapena izango da oinarria. Hona hemen:

- Komunikatiboa: Ikasle hauek ondoko ikas-estrategiak erabiltzen dituzte: euskaldun zaharrei entzunez eta begiratu ikastea, lagunekin euskaraz mintzatzea, telebista euskaraz ikusteak, euskara eskolatik at ere erabiltzea, hitz berriak entzunez ikastea eta solastuz ikastea, hain zuzen ere.

- Analitikoa: Ikasle hauek atsegin dute gramatika ikastea, euskara liburuetatik zein egunkarietatik ikastea, bakarrik ikastea, egiten dituzten akatsak euren kasa topatzea eta problemak ebatziz ikastea.
- Gidatua: Ikasle hauek nahiago dute irakasleak den-dena azaltzea, testuliburu propioa izan, koadernoan den-dena idatzi, gramatika ikasi, irakurriz ikasi eta hitz berriak ikusiz ikasi, alegia.
- Zehatza: Ikasle hauek jolasak, argazkiak, filmak, bideoak eta audioak atsegin dituzte. Berebat, binaka hitz egitea eta eskolatik kanpo euskara praktikatzea ere gustatzen zaie.

2.2. Ikas-estrategiak zer diren eta zer ikas-estrategia mota dagoen

Arestian aipatu diren ikas-estiloek, nahitaez, lotura izan behar dute ikas-estrategiekin. Pikabea-k (2002) zitaturako Brown-en (1991) arabera, ikas-estrategiak ezin dira ekintza isolatuak bailiran ulertu. Izan ere, ikas-estiloek eta nortasuneko beste zenbait faktorek ere zuzen-zuzenean eragiten diete ikas-estrategiei.

Zer dira, baina? Ugari dira ikas-estrategiei buruz topa daitezkeen definizioak, baina Cyr-ek (2000) emandako definizioa izango da lan honen abiapuntua. Honelaxe definitu zituen:

H2n ikas-estrategia hitza erabiltzen da ikasleak xede-hizkuntza lortu, bere egin eta berriz erabiltzeko burutzen dituen ekintza-multzo bat izendatzeko. Bestela esanda, H2 ikastea ikusenezake informazioa tratatzeko beste edozein prozesu bezala: subjektuak lehenbizi aurkezten zaizkion informazio-elementu berriak aukeratu eta atzematen ditu. Gero, informazio horiek landu eta bere oroimenean jasoko ditu. Azkenik, handik hartu eta erabili egiten ditu.

(Cyr, 2000: 14)

Halaber, ikas-estrategiak antolatzeke beharra ere nabaria da. Hainbeste dira ikas-estrategiak sailkatzeko erabili izan diren erak, ezen Etxebarriak (2006) bere doktoretza-tesian hiru alditan banatu zituen sailkapenak: lehenengo sailkapenak, 1989 eta 1990 urteetako sailkapenak, eta 90eko hamarkadako sailkapenak, hain zuzen ere. Dena den, Cyr-ek (2000) hiru tipologia nagusiak baino ez zituen aipatu, hots, gaur egun osoentzat jotzen direnak.

Horietako lehenengoa Oxford-en tipologia (1985, 1990) da. (Ikus 1. eranskinen II. taula). Bigarrenik, Rubin-en tipologia (1989) aipatu zuen Cyr-ek (2000). (Ikus 1. eranskinen III. taula). Eta azkenik, autore berak aipaturiko hirugarren sailkapena O'Malley eta Chamot-en tipologia (1990) da (Ikus 1. eranskinen IV. taula):

O' Malley-k eta Chamot-ek (1990) proposatutako tipologia, hainbat aldetatik aurrekoak baino sintetikoagoa eta zorrotzagoa da. Lehenbizi, eredu hau irudi daiteke H2 irakasten dutenei lehorragoa, teorikoagoa eta ikasgelatik urrutikoagoa. Baina, hurbilagotik begiraturaz gero, konturatzen zara erabilerrazagoa dela eta erabilgarriagoa bai ikerketarako bai praktikalariek H2 ikasteko estrategiak benetan zer diren uler dezaten. (Cyr, 2000: 38)

2.3. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak EEBMn

Hasteko, Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) zer den definitu beharra dago. Horretarako, HABE eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik plazaratutako EEMBren itzulpen lanean (2005) ematen den definizioa hartuko da:

Europako Erreferentzia Markoa Europa osorako hizkuntz egitarauak, kurrikulu-orientazioak, azterketak, testu-liburuak etab. prestatzeko oinarri bateratua da. [...] ikasleak egiten dituen aurrerapenak neurtzeko gaitasun-mailak ere definitzen ditu. [...] irakasleei [...] eta abarri beren jardueraz gogoeta egiteko tresnak eskaintzen dizkie, [...].

(EEMB, 2005: 21)

Bestalde, esan beharra dago EEMB kapituluka antolatuta dagoela. Guztira, zazpi kapituluk osatzen dute, bakoitzak bloke edo eremu bati heltzen diolarik.

Gaitasunen garapena lortzeko, ikas-estiloak eta, batik bat, ikas-estrategiak aintzat hartu behar dira. Horregatik, idatzizko dokumentu osoan zehar, zeharka edo era zuzenean, aipu egiten zaie estrategiei. Ondoko lerroetan, EEMBn estrategiekin lotura duten atal nagusiei erreparatuko zaie.

Hasteko, 2. kapituluan honelaxe definitzen dira estrategiak: “Estrategia gizabanakoak bere buruari jartzen dion edo bete behar duen ataza bat gauzatzeko hautatzen duen jarduera-ildo da, jarduera-ildo antolatu, berariazko eta arautua.” (EEMB, 2005: 30)

Gizabanakoaren gaitasun orokorreari buruz ari den kapitulu bereko atal batek dioenez, atazak gauzatzeko estrategiak norbanakoaren gaitasunen aniztasunaren araberrakoak dira. Halaber, errutinazko edo mekanizatutako atazak ez direnean, komunikatzeko eta ikasteko estrategien beharra dago. (EEMB, 2005)

4. kapituluan, badago atal bat komunikazio-jarduerari eta estrategiei buruz ari dena. Bertan esaten denaren arabera, ikasleek komunikazio-atazak gauzatzeko, jarduera komunikatiboak eta komunikazio-estrategiak erabili behar dituzte. Baina zer dira komunikazio-estrategiak?

Estrategiak hizkuntzaren erabiltzaileak bere baliabideak mobilizatzeko eta orekatzeko erabiltzen dituen bideak dira, bere trebetasunak eta prozesuak abian jartzeko erabiltzen dituen bideak. Testuinguruko komunikazio-beharrei erantzutea eta dagokion ataza ahalik eta era osoen edo ekonomikoenean arrakastaz gauzatzea, ataza horren helburu

zehatzaren arabera, da bide horietatik lortu nahi dena. Beraz, estrategia ez da hartu behar ezintasunaren adierazpen soiltzat, gabezia edo komunikazio kaskarra orekatzeko bidetzat. Ama-hizkuntzaz jardutean ere, hiztunek, etengabe, era guztietako komunikazio-estrategiak erabiltzen dituzte (aurrerago aztertuko direnak) estrategia jakin bat unean uneko komunikazio-eskakizunari erantzuteko egokia denean.

(EEMB, 2005: 79)

Bestalde, komunikazio-estrategiak erabiltzeak metakognizioa aplikatzeko aukera ematen du, komunikazio-jardueren planifikazioa, gauzatzea, kontrola eta konponketa direlako. Lau estrategia mota bereiz daitezke. (Ikus 1. eranskinen V., VI, VII. eta VIII. taulak)

Azkenik, 7. kapituluaren esaten denaren arabera, atazak gauzatzeko ezinbestekoak diren alderdien artean estrategiak ere badaude. Izan ere, “Hizkuntzaren ikasle edo erabiltzaileak atazaren eskakizunei erantzuteko eraginkorren izango diren estrategia orokorrak eta komunikazio-estrategiak aktibatu behar ditu.” (EEMB, 2005: 183)

2.4. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak hezkuntza dekretuetan: 175/2007 Dekretua eta 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea

Euskal Curriculumean, ikas-estiloak eta, batez ere, ikas-estrategiei aipu garbia egiten zaie Ikasten eta Pentsatzen Ikasteko Konpetentziari buruz aritzean. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretuak honelaxe azaldu zuen aipatu berri den konpetentzia 6.2. artikuluan:

Irizpide kritikoz ikasten eta pentsatzen ikastea, eta, zehazki, askotariko informazio-iturrietatik (batik bat, komunikabideetatik) jasotako informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.

(EHAA, 2007: 9)

Geroago, 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak honelaxe definitu zuen Ikasten eta Pentsatzen Ikasteko Konpetentzia: “Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.” (Eusko Jaurlaritza, 2015: 34)

Dokumentu berean, arestian aipatutako konpetentziaren osagai nagusiak ere zehaztu ziren; honako hauek, alegia:

1. osagaia: Hainbat iturritan (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) informazioa bilatzea, aukeratzea eta erregistratzea, eta iturrien egokitasuna

ebaluatzea. Informazioa eskuratzeko ohiko urratsak hauexek dira: informazioaren beharrianak eta helburuak zehaztea, bilaketaren baldintzak zehaztea, iturria eta bilaketa-modalitatea hautatzea, lortutako informazioa balioestea eta hautatzea eta, azkenik, lortutako informazioa gordetzea edota zabaltzea. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

2. osagaia: Informazioa ulertzea, buruz ikastea, eta ulertutakoa adieraztea (pentsamendu analitikoa). Irakaskuntza zein ikaskuntza prozesuetan ezinbestekoa da informazioa ulertzea. Horretarako, argi azaldutako eta haien garapen-mailara egokitutako informazioa eman behar zaie ikasleei. Beraz, norberak era guztietako ezagutzak garbi uler ditzakeenean, informazioa modu adierazgarrian interpretatzeko konpetentzia eskuraten da. Konpetentzia horren barnean, informazioa prozesatu egin behar da eta, horrekin batera, ikasteko teknikak (*ikas-estrategiak*) baliatu behar dituzte ikasleek; hala nola azpimarratzea, oharrak hartzea, kontzeptuzko eskemak eta mapak egitea, denbora-lineak eta mnemoteknia. Bestalde, ulertutakoa adieraziz edo jakinaraziz baino ezin da behatu eta ebaluatu. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

3. osagaia: informazioa ebaluatzea eta nola ebaluatu den adieraztea (pentsamendu kritikoa). Informazioa ebaluatzeko hartutako irizpidea, kasu honetan, argudioen eta arrazoibidearen logika erabiltzea da, baita horren pertsuasio-indarra ere. Informazioa ebaluatzeko konpetentzia eskuratzeko, ikaslea gai izan behar da ideien sendotasuna eta ekintzen baliozkotasuna ebaluatzeko. Ebaluatzeko, ez da tinko arrazoiturik gabeko argudiorik onartu behar. Orobat, ondokoak ere bete behar dira: a) pensamendu kritikoa zaintzea b) adituen ikuspuntuak aintzat hartzea eta c) argudioen aldeko jarrera irekia izatea. Bestalde, egungo ikuspegi pragmatiko eta soziokulturala dela-eta, arrazoiak gainera, eraginkortasunak eta pertsuasio-indarrak ere pisu handia hartu dute komunikazioan. Osagai pragmatiko-diskurtsiboak hiru dimentsio ditu: soziolinguistikoa, pragmatikoa eta diskurtsiboa, hain zuzen ere. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

4. osagaia: ideiak sortzea, aukeratzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea). Informazioa sortzeko konpetentzia izango du ikasleak, baldin eta prozesu kognitiboak, aurretiko ezagutzak, nortasun-ezaugarriak eta motibazioa konbinatzen, egokitzen eta aplikatzen baditu. Dena den, sortze-lanean irudimen aktiboa izatea da premiazkoena. Oro har, sorkuntza prozesuak azpi-osagai hauek ditu: produktua, prozesua, pertsona eta presioa, hain zuzen ere. Gainera, prozesu sortzaileak lotura estua du egiteko eta ekiteko erabakiak hartzeko prozesuarekin. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

5. osagaia: baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz. Ikasleak jokabide estrategikoa izango du, baldin eta ikasteko modurik egokiena hautatzen badu informazioa barneratzeko, sortzeko eta balioesteko prozesuetan, eta hura bat baldin badator ezarritako helburuarekin. Eta azkenik, ikasitakoaren transferentzia dator. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

2.5. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak nola landu izan diren

Azken hogeitun urteotan, ugari dira ikas-estiloen eta ikas-estrategien irakaskuntza jorratzeaz arduratu izan diren autoreak. Besteak beste, Oxford-ek (2003) ikas-estrategiak lantzeko jarraibide batzuk eman zituen eta Chamot-ek (2004) ikas-estrategiak irakasteko ordura arte argitaratutako lanak bildu zituen. Bestalde, esan beharra dago nahiz eta ikas-estrategiei baino ez zaien aipu egiten, ikas-estiloak ere barne hartzen dituela esaten duten orok; aurretik azaldu bezala, estu-esturik lotuta daude-eta.

Hizkuntza-irakasleek, ikas-estrategiak ikasgelara eramanez aurretik, ikas-estrategiak ezagutarazteko bideak arakatu eta aztertu behar dituzte. Aurre-prestakuntza fase horretan, hezitzaileei probetxugarria suerta dakieke ikastaroak egitea, informazio adierazgarria prentsan edo sarean topatzea, eta adituekin harremanetan egotea. (Oxford, 2003)

Azken urteotako ikerketak gero eta argiago uzten ari dira estrategiek onura handiak dakartzatela H2 ikasleen ikas-prozesuan. Zenbait irakasleren arabera, egokiagoa da esku-hartze sinpleekin hastea; adibidez, ikasleei hitzak analizatzen eta berorien esanahia testuinguruari erreparatuta asmatzen irakastea. Beste batzuek, ordea, nahiago dute zuzenean estrategien irakaskuntzan erabat murgildu, lau gaitasun orokorrak (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina) landuz. Ildo beretik, Chamot-ek eta O'Malley-k (1996) CALLA metodoa azaldu zuten, ikas-estrategien irakaskuntza oinarri duen jardunbidea. Ikasitakoa ebaluatzeko, irakasleak ikasleen hizkuntza-maila, eraginkortasuna eta motibazioa eduki beharko ditu kontuan. (Oxford, 2003)

Chamot-ek (2004), zenbait autoreren hitzak bere eginda, azpimarratu egin zuen ikasleek behar-beharrezkoa dutela gaitasun metakognitiboa garatzea ikas-estrategien inguruan kontziente izateko. Beheko taulak hizkuntza arloan ikas-estrategiak lantzeko irakasbideak/metodoak alderatzen ditu. (Ikus 1. eranskineko IX. taula)

2.6. Ikas estrategiak eta *ikasle ona*

70eko hamarkadako azken urteetatik aurrera, hainbat ikertzailek *ikasle onen* portaerak, jarrerak eta estrategiak deskribatu zituzten eta beste zenbait sutsu ibili ziren ikas-estragien eta test estandarizatuetao emaitzen arteko lotura ezarri nahian. Hartara, bilatzen zen egiaztatzea ikas-estragiak erabiltzen dituzten ikasleek gaitasun orokor hobe a dutela eta, ondorioz, ikasle hobeak direla. (Cyr, 2000)

H2ko ikas-estragiei buruzko lehenengo ekarpenak Wesche-k (1975, 1979), Bialystok-ek (1978), Politzer eta MrGroarty-k (1985) eta O'Malley-k eta bere lankideek (1985a, 1985b) egin zituzten. Aurrerago, Abraham eta Vann-ek (1987) eta Vann eta Abraham-ek (1990) ikasle onen eta ikasle kaskarren ikas-estragiak alderatu zituzten. (Cyr, 2000)

Etxebarriaren (2006) ustez, nekez azaldu daiteke *ikasle ona* zer den. Kanean galdetuz gero, ziur aski, emaitza onak lortzen dituen a dela esango luke gehiengoak. Alabaina, hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, behintzat, zenbait autorek argi utzi du haratago doan kontzeptua dela; hala nola, J. Willis-ek (1998, Etxebarriak 2006an aipatua).

Thompson-en (2005) iritziz, Ingeles *ikasle ona* izateko gakoak motibazioa, parte-hartzea, pazientzia, tolerantzia eta metakognizioa dira. Hona hemen ikasle onei buruz zioena:

First of all, these learners are motivated to learn and they believe that they are capable of learning. Typically, they have a high tolerance for ambiguity, are patient with themselves, aware of their own learning styles and cognizant of effective learning strategies and they are not afraid to ask questions or make mistakes. Most of these learners have good organizational skills and willingly accept suggestions of how to become even more organised! The good language learners I know are either aware of how to record, remember and retrieve new information, or quickly learn the skills, and they readily seek opportunities to use it. They tend to become more involved with their host families and the community they are living in and they often want to get to know members of their community, practice English and build lasting relationships. Of course, not all of these 'good language learners' have possessed all of these qualities simultaneously, but most developed them over time and put them to good use.

(Thompson, 2005: 3)

Era berean, Thompson-ek (2005) beste autore batzuek *ikasle onen* inguruan eman zituzten ezaugarriak bildu zituen taula eran. Lehenengoan, Rubin-ek eta Thompson-ek (1983) eman zituzten ezaugarriak zerrendatu zituen eta, bigarreanean, Lightbown-ek eta Spada-k (1997) eman zituztenak. (Ikus 1. eranskineko X. eta XI. taulak)

Ildo beretik, autore berak dio *ikasle on* guztiak ez direla berdinak, norberaren izaerak, beharrek eta bizipenek erabat baldintzatzen dutelako ikas-jarrera. Alabaina, orok ikas dezake ikasle hobea izaten eta, beraz, norberarentzat probetxugarriak diren ikas-estrategiak erabiltzen ere. Bestalde, irakaslearen eginkizunak ikasleak goratzea, euren autoestimua zaintzea, interesatzen zaizkien gaien inguruan hitz egitea eta ikasgelako aniztasunari erantzutea dira. (Thompson, 2005)

3. DIAGNOSTIKOA

Lehenengo eta behin, diagnostikoa egin da Bilboko zentro kontzertatu bateko ikasle multzo baten ikas-estiloen eta ikas-estrategien inguruan. Ondoren, ikerketan bildutako datuak tratatu egin dira eta emaitzak atera dira. Lehenengo azpi-atalean lan-prozesuaren azalpen sakona garatu da; bigarrenean, parte-hartzaileen inguruko ezaugarriak biltzen dituzten grafikoak; eta azkenean, ikerketatik ateratako emaitzak.

3.1. Sortzeko prozedura

Gradu Amaierako Lanean ikas-estiloen eta ikas-estrategiei buruzko diagnostikoa egitea erabaki zenean, Wong-ek eta Nunan-ek (2011) Hong Kong-en ikasle arrakastatsuen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak neurtzeko ikerketa lanean erabili zuten inkesta bera egitea pentsatu zen. Galdetegi hura sarean topatu zuten aurreko bi autoreek eta, jatorrian Willing-en (1994) inkesta omen bazen ere, Wong-ek eta Nunan-ek (2011) moldatu egin zuten.

Lan honen diagnostikora itzulita, Wong-en eta Nunan-en (2011) galdetegi euskaratu egin zen (ikus 2. eranskina). Galdetegi zer ikasle-multzori pasatuko zitzaien erabakitzerako orduan, aintzat hartu ziren galdetegiaren konplexutasuna eta geroko ikerketa ganoraz egiteko beharrezkoa zen lagina. Era berean, Bilboko zentro kontzertatu batean eginiko praktika-aldia aprobetxatu zen galdetegi bertako ikasleei pasatzeko. Hartara, 5. mailako bi ikasle taldek eta 6. mailako beste bik bete zuten. Guztira, 104 ikaslek erantzun zioten galdetegiari. Orobat, galdetegiak 2018ko otsailean eta martxoan bete zituzten. Izan ere, ez ziren inkesta guztiak aldi berean pasatu, talderik talde ibili behar izan zelako.

Galdetegiko emaitzak biltzeko Excel programaz baliatu zen eta datuak kodifikatu egin ziren. Gero, informazioa tratatu egin zen eta item bakoitzaren erantzunen ehunekoak atera ziren. Aurrerago, itemak dagokien ikas-estiloaren arabera

sailkatu ziren, orotara lau bloke (ikas-estilo) sortuz: ikas-estilo komunikatiboa, ikas-estilo analitikoa, ikas-estilo gidatua eta ikas-estilo zehatza, hain zuzen ere. Orobat, aldagaien araberako grafiko bana sortu zen. Azkenik, ikas-estilo bakoitzaren emaitza orokorrak atera ziren eta ondorioztatu egin zen, galdetegiari erantzun ziotenen artean, ikas-estilo zehatza dela nagusi. Horregatik, lanean ikas-estilo zehatzari bideratutako proposamen didaktikoa garatu zen.

3.2. Parte-hartzaileak

Atal honetan Bilboko ikastetxe kontzertatu batean egin den galdetegian parte hartu dutenen datuak azaltzen dira, alegia, ikasleen adinari, generoari, ikas-mailari, ama-hizkuntzari/hizkuntzei eta jaioterriari buruzko datuak. Horiek guztiak inkestako aldagaiak dira.

Alde batetik, galdetegiari erantzun ziotenen adinari dagokionez, %50ek 11 urte du; %37k, 10; %12k, 12; eta falta den %1ak, 13. (Ikus 2. eranskineko I. grafikoa)

Beste aldetik, galdetegiari erantzun diotenen generoari erreparatuta, datuen arabera, %52 mutila da eta beste %48a, neska. Ikus daitekeenez, bi balioak oso antzekoak dira. (Ikus 2. eranskineko II. grafikoa)

Gainera, galdetegiari erantzun dion %52 5. mailan dago eta beste %48a, 6. mailan. Ikasle guztiak 3. zikloan daudenez, badira ganoraz arrazoitzeko eta galdetegiko galdera orori erantzuteko gai. (Ikus 2. eranskineko III. grafikoa)

Galdetegiari erantzun diotenen jatorrizko hizkuntzei dagokienez, gehienek (%74) jatorrizko hizkuntza gaztelania da. Bestalde, ikasleen %16k adierazi egin du gaztelaniaz gain, baduela beste ama-hizkuntza bat ere: euskara, alegia. Ildo beretik, %5ek euskara baino ez du ama-hizkuntza. Era berean, ikasleen %3k etxean, gaztelaniaz aparte, euskara ez den beste hizkuntza bat ere ikasi du. Azkenik, falta den beste %2ak euskara eta gaztelania ez diren beste ama-hizkuntza bat du. Gainera, gehienek ama-hizkuntza gaztelania izatea bat dator zentroko testuinguru soziolinguistikoarekin. (Ikus 2. eranskineko IV. grafikoa)

Azkenik, galdetegia bete dutenen jaioterriari buruz esan beharra dago gehienek (%91) Bilbon jaioak zirela. Orobat, %4 Barakaldon jaio zen eta beste %5a Euskal Herriko edo munduko beste bazterren batean. Gainera, datuok, halabeharrez, lotura estu-estua daukate arestian analizatutako ama-hizkuntzari buruzko galderarekin. (Ikus 2. eranskineko V. grafikoa)

3.3. Emaidzak

Jatorrizko galdetegian oinarriturik, inkestako itemak lau multzotan sailkatu dira: ikas-estilo komunikatiboa, ikas estilo analitikoa, ikas-estilo gidatua eta ikas-estilo zehatza. Emaidza globalak lortzeko, lehenengo, item bakoitzeko datuak atera dira eta, ondoren, ikas-estilo bakoitzeko emaitzak kalkulatu dira.

| IKAS-ESTILO KOMUNIKATIBOA | | | |
|--|--------------------------|------------------|---------------|
| Itema | Erantzuna | Ikasleak | Ehunekoa |
| 9- Euskara saioetan, hitz eginez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 19/104 | % 18,27 |
| | Gustatzen zait | 68/104 | %65,38 |
| | Ez zait gustatzen | 16/104 | % 15,38 |
| | Ez zait batere gustatzen | 1/104 | %0,96 |
| 20- Euskara talde txikietan ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 23/104 | % 22,12 |
| | Gustatzen zait | 61/104 | %58,65 |
| | Ez zait gustatzen | 15/104 | % 14,42 |
| | Ez zait batere gustatzen | 5/104 | %4,81 |
| 21- Euskara gelakide guztiekin ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 39/104 | % 37,5 |
| | Gustatzen zait | 46/104 | %44,23 |
| | Ez zait gustatzen | 13/104 | % 12,5 |
| | Ez zait batere gustatzen | 6/104 | %5,77 |
| 22- Gelakideekin kanpora joatea eta euskara praktikatzea. | Izugarri gustatzen zait | 29/104 | % 27,88 |
| | Gustatzen zait | 54/104 | %51,92 |
| | Ez zait gustatzen | 18/104 | % 17,31 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3/104 | % 2,88 |
| 27- Hitz berriak entzunez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 25/104 | % 24,04 |
| | Gustatzen zait | 61/104 | %58,65 |
| | Ez zait gustatzen | 16/104 | % 15,38 |
| | Ez zait batere gustatzen | 2/104 | % 1,92 |
| 30- Etxean, telebista euskaraz ikusiz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 21/104 | % 20,19 |
| | Gustatzen zait | 40/104 | %38,46 |
| | Ez zait gustatzen | 32/104 | % 30,77 |
| | Ez zait batere gustatzen | 11/104 | % 10,58 |
| 31- Etxean, audioak (irratia, kasu) euskaraz entzunez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 11/104 | % 10,58 |
| | Gustatzen zait | 35/104 | % 33,65 |
| | Ez zait gustatzen | 45/104 | %43,27 |
| | Ez zait batere gustatzen | 13/104 | % 12,5 |
| 33- Lagunekin euskaraz hitz eginez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 14/104 | % 13,46 |
| | Gustatzen zait | 42/104 | %40,38 |
| | Ez zait gustatzen | 37/104 | % 35,58 |
| | Ez zait batere gustatzen | 11/104 | % 10,58 |
| 34- Hizlari euskaldunak ikusiz eta beroriei entzunez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 16/104 | % 15,38 |
| | Gustatzen zait | 49/104 | %47,12 |
| | Ez zait gustatzen | 36/104 | % 34,62 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3/104 | % 2,88 |
| EMAITZA OROKORRAK | Izugarri gustatzen zait | 21,89/104 | % 21,05 |
| | Gustatzen zait | 50,67/104 | %48,72 |
| | ATSEGIN DUTENAK | 72,56/104 | %69,77 |

| | | | |
|--|---------------------------|------------------|---------------|
| | Ez zait gustatzen | 25,33/104 | %24,36 |
| | Ez zait batere gustatzen | 6,11/104 | %5,87 |
| | ATSEGIN EZ DUTENAK | 31,44/104 | %30,23 |

XII. taula. Ikas-estilo komunikatiboa. Itemetako emaitzak eta emaitza orokorrak ehunekotan (%)

(Norberak egina, 2018)

Bildutako datuak mahai gainean jarrita, antzeman daiteke, oro har, inkestari erantzun diotenen atsegin dutela ikas-estilo komunikatiboa erabiltzea. Izan ere, %69,77k adierazi du gustatzen zaiola edo izugarri gustatzen zaiola ikas-estrategia komunikatiboen bidez ikastea; beste %30,23ari, ordea, ez zaio gustatzen edo ez zaio batere gustatzen. Item bakoitzeko emaitzetara jota, ikus daiteke ikas-ordutegiaren barruko dinamiketan euskaraz ikastea begi onez ikusten dutela. Izan ere, 9., 20., 21. eta 22. itemetako emaitza positiboek halaxe egiaztatzen dute. Aitzitik, jarrera negatiboagoa erakutsi dute eskolatik kanpoko bizi-eremuetan euskaraz entzutea edo mintzatzea eskatzen duten ekintzen aurrean. Horrenbestez, lagunartean euskaraz aritzeari (33. itema), hizlari euskaldunekin mintzatzeari (34. itema) eta telebista zein irratia euskaraz entzuteari (30. eta 31. itemak) buruzko galderak emaitza okerragoak izan dituzte.

| IKAS-ESTILO ANALITIKOA | | | |
|---|--------------------------|----------|---------------|
| Itema | Erantzuna | Ikasleak | Ehunekoa |
| 14- Irakasleak lanean aritzeko problemak planteatzea. | Izugarri gustatzen zait | 19/104 | %18,27 |
| | Gustatzen zait | 66/104 | %63,46 |
| | Ez zait gustatzen | 16/104 | %15,38 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3/104 | %2,88 |
| 17- Irakasleak egiten ditudan akatsak neuri topatzen uztea. | Izugarri gustatzen zait | 12/104 | %11,54 |
| | Gustatzen zait | 61/104 | %58,65 |
| | Ez zait gustatzen | 25/104 | %24,04 |
| | Ez zait batere gustatzen | 6/104 | %5,77 |
| 18- Euskara nire kasa ikastea (bakarrik). | Izugarri gustatzen zait | 6/104 | %5,77 |
| | Gustatzen zait | 38/104 | %36,54 |
| | Ez zait gustatzen | 37/104 | %35,58 |
| | Ez zait batere gustatzen | 23/104 | %22,12 |
| 23- Gramatika ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 6/104 | %5,77 |
| | Gustatzen zait | 54/104 | %51,92 |
| | Ez zait gustatzen | 36/104 | %34,62 |
| | Ez zait batere gustatzen | 8/104 | %7,69 |
| 29- Etxean, egunkariak eta abar irakurriz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 12/104 | %11,54 |
| | Gustatzen zait | 36/104 | %34,62 |
| | Ez zait gustatzen | 37/104 | %35,58 |
| | Ez zait batere gustatzen | 19/104 | %18,27 |
| 32- Etxean, euskara liburuak landuz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 10/104 | %9,62 |
| | Gustatzen zait | 54/104 | %51,92 |
| | Ez zait gustatzen | 29/104 | %27,88 |
| | Ez zait batere gustatzen | 11/104 | %10,58 |

| | | | |
|--------------------------|---------------------------|------------------|---------------|
| EMAITZA OROKORRAK | Izugarri gustatzen zait | 10,83/104 | % 10,42 |
| | Gustatzen zait | 51,5/104 | %49,52 |
| | ATSEGIN DUTENAK | 62,33/104 | %59,94 |
| | Ez zait gustatzen | 30/104 | % 28,84 |
| | Ez zait batere gustatzen | 11,67/104 | % 11,22 |
| | ATSEGIN EZ DUTENAK | 41,67/104 | %40,06 |

XIII. taula. Ikas-estilo analitikoa. Itemetako emaitzak eta emaitza orokorrak ehunekotan (%)

(Norberak egina, 2018)

Ikas-estilo analitikoaren emaitza orokorrek adierazten dute galdetegiari erantzun diotenen artean gehiengoak baduela atsegin ikas-estilo analitikoa erabiltzea. Zehatzago esanda, ikasleen %59,94ri gustatzen zaio estrategia analitikoak erabiltzea; beste %40,06ari, ordea, ez. Dena den, lau ikas-estiloetatik, emaitza negatiborik altuenak honexek jaso ditu; beraz, badago taulako datu-pilaren azpian zer aztertua. Hasteko, esan beharra dago 14. itemari erantzun dioten ikasleei nahikotxo gustatzen zaiela problemak ebatziz lan egitea. Era berean, 17. itemaren emaitzetatik ondoriozta daiteke egiten dituzten akatsak ikasleek eurek topatzea atsegin dutela. Pentsa liteke autonomiaz jardutea gustatzen zaiela, baina 18. itemeko emaitzek guztiz kontrakoa islatzen dute, erantzun zutenaren arabera, gehiengoari ez zitzaion bere kasa ikastea gustatzen. Azkenik, 29. itemaren emaitza negatiboek agerian uzten dute, batetik, euskara eta bizi-eremu pribatua, ikasleen ustez, ezin daitezkeela bat etor eta, bestetik, egunkaria irakurtzea aspergarritzat jotzen dutela.

| IKAS-ESTILO GIDATUA | | | |
|--|--------------------------|-----------------|------------------|
| Itena | Erantzuna | Ikasleak | Ehunekoak |
| 6- Euskara saioretan, irakurriz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 5/104 | %4,81 |
| | Gustatzen zait | 76/104 | %73,01 |
| | Ez zait gustatzen | 21/104 | %20,19 |
| | Ez zait batere gustatzen | 2/104 | %1,92 |
| 11- Dena koadernoan idaztea. | Izugarri gustatzen zait | 9/104 | %8,65 |
| | Gustatzen zait | 38/104 | %36,54 |
| | Ez zait gustatzen | 41/104 | %39,42 |
| | Ez zait batere gustatzen | 16/104 | %15,38 |
| 12- Testuliburu propioa izatea. | Izugarri gustatzen zait | 13/104 | %12,50 |
| | Gustatzen zait | 49/104 | %47,12 |
| | Ez zait gustatzen | 34/104 | %32,69 |
| | Ez zait batere gustatzen | 8/104 | %7,69 |
| 13- Irakasleak den-dena azaltzea. | Izugarri gustatzen zait | 33/104 | %31,73 |
| | Gustatzen zait | 47/104 | %45,19 |
| | Ez zait gustatzen | 21/104 | %20,19 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3/104 | %2,88 |
| 15- Irakasleak atsegin ditudan gaien inguruan hitz egitea. | Izugarri gustatzen zait | 45/104 | %43,27 |
| | Gustatzen zait | 50/104 | %48,08 |
| | Ez zait gustatzen | 7/104 | %6,73 |

| | | | |
|---|---------------------------|------------------|---------------|
| | Ez zait batere gustatzen | 2/104 | %1,92 |
| 16- Irakasleak egiten ditudan akats guztiak esatea. | Izugarri gustatzen zait | 17/104 | %16,35 |
| | Gustatzen zait | 50/104 | %48,08 |
| | Ez zait gustatzen | 32/104 | %30,77 |
| | Ez zait batere gustatzen | 5/104 | %4,81 |
| 24- Hitz berri asko ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 30/104 | %28,85 |
| | Gustatzen zait | 60/104 | %57,69 |
| | Ez zait gustatzen | 14/104 | %13,46 |
| | Ez zait batere gustatzen | 0/104 | %0 |
| 26- Hitz berriak ikusiz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 18/104 | %17,31 |
| | Gustatzen zait | 67/104 | %64,42 |
| | Ez zait gustatzen | 18/104 | %17,31 |
| | Ez zait batere gustatzen | 1/104 | %0,96 |
| EMAITZA OROKORRAK | Izugarri gustatzen zait | 21,25/104 | %20,43 |
| | Gustatzen zait | 54,63/104 | %52,52 |
| | ATSEGIN DUTENAK | 75,88/104 | %72,95 |
| | Ez zait gustatzen | 23,5/104 | %22,6 |
| | Ez zait batere gustatzen | 4,63/104 | %4,45 |
| | ATSEGIN EZ DUTENAK | 28,13/104 | %27,05 |

XIV. taula. Ikas-estilo gidatua. Itemetako emaitzak eta emaitza orokorrak ehunekotan (%)

(Norberak egina, 2018)

Ikas-estilo gidatuko emaitza orokorreari erreparatuz, ikus daiteke %72,95ek atsegin duela ikas-estrategia gidatuak erabiltzea; beste %27,05ak, ordea, ez. Bildutako datuetan sakonduz, 6. itemak agerian uzten du ikasleei nahikotxo gustatzen zaiela euskara saioetan irakurriz ikastea; ez, aldiz, dena koadernoan apuntatzea (11. itema). Era berean, 13., 15. eta 16. itemetako emaitzen aurrean, esan daiteke galdetegiari erantzun dioten ikasleak eroso sentitzen direla irakaslearen gidaritzapean. Azkenik, esan beharra dago hitz berriak ikastearen aldekoak ere badirela (24. itema), gehienbat beroriek ikusiz (26. itema).

| IKAS-ESTILO ZEHATZA | | | |
|---|--------------------------|-----------------|-----------------|
| Itema | Erantzuna | Ikasleak | Ehunekoa |
| 7- Euskara saioetan, audioak entzutea eta erabiltzea. | Izugarri gustatzen zait | 17/104 | %16,35 |
| | Gustatzen zait | 68/104 | %65,38 |
| | Ez zait gustatzen | 16/104 | %15,38 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3/104 | %2,89 |
| 8- Euskara saioetan, jolastuz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 80/104 | %76,92 |
| | Gustatzen zait | 19/104 | %18,27 |
| | Ez zait gustatzen | 5/104 | %4,81 |
| | Ez zait batere gustatzen | 0/104 | %0 |
| 10- Euskara saioetan, irudiak, filmak eta bideoak erabiliz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 62/104 | %59,62 |
| | Gustatzen zait | 32/104 | %30,77 |
| | Ez zait gustatzen | 9/104 | %8,65 |
| | Ez zait batere gustatzen | 1/104 | %0,96 |
| 19- Euskara bikoteka solastuz | Izugarri gustatzen zait | 26/104 | %25 |

| | | | |
|--|---------------------------|------------------|---------------|
| ikastea. | Gustatzen zait | 51/104 | %49,04 |
| | Ez zait gustatzen | 22/104 | %21,15 |
| | Ez zait batere gustatzen | 5/104 | %4,81 |
| 25- Ahoskera eta soinuak praktikatzea. | Izugarri gustatzen zait | 22/104 | %21,15 |
| | Gustatzen zait | 58/104 | %55,77 |
| | Ez zait gustatzen | 23/104 | %22,12 |
| | Ez zait batere gustatzen | 1/104 | %0,96 |
| 28- Hitz berriak zerbait berezia eginez ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 34/104 | %32,69 |
| | Gustatzen zait | 59/104 | %56,73 |
| | Ez zait gustatzen | 9/104 | %8,65 |
| | Ez zait batere gustatzen | 2/104 | %1,92 |
| 35- Euskara gelatik kanpo (adibidez, dendetan) erabiliz ikastea. | Izugarri gustatzen zait | 17/104 | %16,35 |
| | Gustatzen zait | 44/104 | %42,31 |
| | Ez zait gustatzen | 32/104 | %30,77 |
| | Ez zait batere gustatzen | 11/104 | %10,58 |
| EMAITZA OROKORRAK | Izugarri gustatzen zait | 36,86/104 | %35,44 |
| | Gustatzen zait | 47,29/104 | %45,47 |
| | ATSEGIN DUTENAK | 84,15/104 | %80,91 |
| | Ez zait gustatzen | 16,57/104 | %15,93 |
| | Ez zait batere gustatzen | 3,29/104 | %3,16 |
| | ATSEGIN EZ DUTENAK | 19,86/104 | %19,09 |

XV. taula. Ikas-estilo zehatza. Itemetako emaitzak eta emaitza orokorrak ehunekotan (%)

(Norberak egina, 2018)

Dena dela, ikas-estilo guztietatik ikas-estilo zehatzak izan ditu emaitza orokor onenak. Galdetegiari erantzun diotenen %80,91k adierazi egin du atsegin duela ikas-estilo zehatza eta, beste %19,09ak baino ez du adierazi aurkako iritzia. Galderaz galdera aztertutik, ikas-estilo honi dagozkion itemetan topa daitezke emaitzarik garbienak. Alde batetik, euskara saioetan audioen (7. itema) eta, batik bat, filmen, bideoen eta irudien (10. itema) bitartez ikastea nabarmen gustatzen zaiela ikus daiteke. Gainera, emaitzen arabera, bikoteka hitz egitea (19. itema), fonetika lantzea (25. itema) eta ekintza berezien bitartez lexikoa ikastea (28. itema) ere atsegin dute. Bestalde, aurreko ikas-estiloetako emaitza orokorreari erreparatuz ondorioztatu bezala, 35. itemak agerian utzi du euskara gelatik kanpo lantzea eskatzen duten dinamikek ez dutela, normalean, ikasleen partetik harrera onik izaten. Bukatzeko, 8. itemeko emaitzei sakon begiratu behar zaie, ia ikasleen %77k adierazi duelako izugarri gustatzen zitzaiola jolastuz ikastea.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Lan honetako berrikuntza proiektua aurrera eramateko, ikas-estilo zehatzaren inguruan eta ikas-estrategiak alde batera utzi gabe, hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak hobetzeko webgunea sortu da, WIX plataformaren bitartez, *Jolasikas* izena

jaso duena, hain zuzen ere. *Jolasikas*, bere izenak dioenez, jolasen bitartez ikasteko aukera eskaintzen duen atari interaktiboa da eta emaitzetan ikusi den eskaera argi bati erantzuten dio, hau da, jolastuz ikasi nahiari. Webgunean sartzeko, jo hurrengo esteka honetara: <https://josubilbaovillasan.wixsite.com/jolasikas>.

Baina zer abantaila dakar jolastuz ikasteak? Bada, hainbat alde positibo izan ditzake: arriskatzea eta lotsa galtzea, gaitasun kognitiboa hobetzea, giza-harremanak hobetzea, sormena erabiltzea, era esanguratsuan ikastea, motibatzea, eduki teorikoak (gramatika, kasu) testuinguruan ipintzea, lasai jardutea, parte hartzea, ikasitakoaz gogoeta egitea, beste kultura batzuk ezagutaraztea... Bestalde, jolasek zenbait ezaugarri komun izan behar dituzte: adostu egin behar dira, lehiatzea ez da helburua izan behar, mugak izan behar dituzte, errepikatzeke aukera egon behar da, sekuentzia ordenatuak izan behar dira, eztabaida sortu behar dute, arauak izan behar dituzte eta komunikazioa landu behar dute. (Tornerro, 2009)

Ondoren, berorren ezaugarriei, sortze-prozesuari, oinarri kurrikularrari eta erabilerari helduko zaie:

4.1. Ezaugarriak

Arestian esan bezala, webguneari *Jolasikas* izena eman zaio. Estekan (<https://josubilbaovillasan.wixsite.com/jolasikas>) klikatuz gero, sarrera da irekitzen den lehenengo leihoa. Bertan, jolastuz ikasteko beharra justifikatzen da eta, horrekin batera, webgune osoan zehar topa daitezkeen irakas-baliabideak labur azaltzen dira ere.

Webgunearen goiko partean gorri koloreko barra bat ageri da. Barra horretan, besteak beste, lanaren enborra osatzen duten sei eratako jolasen estekak topa daitezke; hona hemen jolas motak: rol-jokoak, sormen-jolasak, intonazio-jolasak, jolas tradizionalak, jolasak irudiekin eta jolasak filmekin zein bideoekin, hain zuzen ere. Era berean, jolas-jarduera bakoitzaren izena, helburuak, iraupena, materialak, ikas-maila, garapena, ebaluazioa eta erreferentzia bibliografikoak zehazten dira. Ondoren, mota bakoitza zertan datzan azalduko da:

- Rol-jokoak: Jarduera hauetan ikasleek irakaslearekin edota gelakideekin adostutako rol bat antzeztuko dute. Batzuetan, ikasle batzuk antzezten ari diren bitartean, beste batzuk ikusten ariko dira, beti ere, ikasle guztien parte-hartzea bermatuko delarik. Beste batzuetan, ordea, ikasle bakoitzak rol bat jasoko du eta berorri dagokion eginkizuna ahalik eta ondoen betetzen ahalegingindu egin behar izango da.

- Sormen-jolasak: Atal honetan hizkuntza sormen tresna bailitzan erabiliko dute ikasleek hitzak, esaldiak edo istorioak asmatzeko. Era horretan, sormenaren bidez hizkuntza munduko barrunak sakonago ezagutuko dituzte.
- Intonazio-jolasak: Ikasleek hitz egiteko erak aztertuko dituzte, adierazpena landuko dute eta edukiaren eta formaren arteko loturari erreparatuko diote. Era berean, keinu-hizkuntzari ere garrantzi handia emango zaio.
- Jolas tradizionalak: Atal honen barruan topa daitezkeen jolas-jardueretan jolas tradizional ugari egingo dira: dominoa, letra-zopa, gurutzegramak... Arau zehatz eta ulerterrazak eskainiko dituzte eta ikasleek euren artean komunikatzeko egoera ugari sorraraziko dituzte ere.
- Jolasak irudiekin: Ikasleek ikus-baliabideak erabiliko dituzte ondoren beroriekin lotutako komunikazio-jarduerak egiteko. Baliabideen artean, puzzleak, binetak eta irudiak topa daitezke.
- Jolasak filmekin eta bideoekin: Ikasleek ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dituzte eta beroriekin lotutako komunikazio-jarduerak burutuko dituzte. Atal honetan, filmak eta bideo laburrak topa daitezke.

Formatuari dagokionez, zenbait aspektu zaindu nahi izan dira. Lehenik, erakargarria izan dadin atzealde mugikor eta dinamikoa ipini da. Halaber, webguneko elementuen arteko kromatikotasunari ere erreparatu egin zaio, itxura atsegina eman nahian. Bestetik, idazkera ulerterraza, zuzena eta egokia erabili da, une oro erabiltzaileari bere jarduna zelan bideratu behar duen argi uzten diona. Azkenik, interfaze sinple, ikusgarri eta erabilerraza sortu dela azpimarratu behar da.

Esandako guztiaz gainera, *Jolasikas* webguneko erabiltzaileek euren artean txat bidez hitz egin dezakete, iruzkinak egin ditzakete, foroan idatz dezakete eta, kontaktu datuak erabiliz, sortzailearekin harremanetan ipin daitezke.

4.2. Sortzeko prozedura

Webgunea abiarazteko, diagnostikoko emaitzak aztertu ziren. Beraietan ikusten zenez, ikas-estilo zehatza zen ikasle gehienei gustatzen zaiena eta, zehatzago esanda, jolastuz eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliz ikastea. Hura horrela, lehenik, jolasa irakas-baliabide gisa aldarrikatzen duen zenbait autoreren iritzia aztertu zen; adibidez, Tornero-k (2009) eta Gertrudix-ek eta Gertrudix-ek.diotena (2013).

Ondoren, webgunea sortzeko WIX plataforma erabiltzea erabaki zen eta jolasak sortzeari ekin zitzaion. Zenbait jolas Tornero-ren (2009) *Las actividades lúdicas en la*

clase de E/LE liburuko ariketa jakin batzuk moldatuz sortu ziren eta beste zenbait, aldiz, norberaren irakas-esperientzia oinarri hartuta. Bestalde, jolasak irudiekin eta jolasak filmekin zein bideoekin sortzeko ikus-entzunezko baliabideak saretik deskargatu ziren, beti ere, copyright-ik ez zuten haiek hartuta. Prozesuaren bukaeran, formatua itxuraldatu zen, idazkera berrikusi zen eta txata, foroa, iruzkinak eta kontaktu-datuak erantsi zitzaizkion webguneari.

4.3. Lantzen diren 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileko kompetentziak, edukiak eta helburuak

236/2015eko Dekretuak, hau da, Heziberri 2020-k (2015) zenbait kompetentzia, eduki eta helburu zehazten ditu. *Jolasikas* webgunearen bitartez horietako batzuk lantzen dira. Hasteko, lantzen diren oinarritzko zehar-kompetentziei helduko zaie. Hona hemen:

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia: “Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 30). Webgunean batik bat hitzezko komunikazio-jarduerak proposatzen dira, baina tartean badira hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala lantzea ahalbidetzen duten jarduerak eta baliabideak ere.

Elkarbizitzarako kompetentzia: “Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 40). *Jolasikas* webgunean ikasleek talde-jardueretan eta lankidetzan arituz landu dezakete.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia: “Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 45). *Jolasikas* webgunean badira zenbait jarduera ikasleei inizatibaz eta ausardiaz jokatzeko eskatzen dietenak, adibidez, *Berria non*, *kazetaria han* izenekoak.

Norbera izaten ikasteko kompetentzia: “Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan [...] gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu

eta egokitzea horiek guztiak eta [...] norbera autorrealizaziora bideratzea, [...]” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 48). *Jolasikas* plataforma digitalaren bidez lantzen diren jolas-jarduerak norberari ikaskuntza-prozesuaren inguruan gogoeta egiten, hizkuntza-maila hobetzen eta autorrealizaziora bideratzen laguntzen diote.

Ondoren, webgunearen bitartez lantzen diren oinarrizko diziplina barneko kompetentziak azalduko dira:

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia: “Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan [...] komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza, [...]” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 59). Kasu honetan, *Jolasikas* webguneak euskaraz egoera naturaletan komunikatzeko jolas-jarduerak planteatzen ditu.

Teknologiarako kompetentzia: “Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea, [...] jakintzak era metodiko eta eraginkorrean aplikatuta, [...], eta lortutako emaitzen berri ematea, [...]” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 81). *Jolasikas* webgunean, zenbait jarduera aurrera eramateko ordenadoreak edo tabletak behar dira, izan ere, ikasleek jakintza-teknologikoak erabiltzen jakitea bilatzen da ere.

Bestalde, Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentziaren barruan Euskara eta Literatura irakasgaia dago. Era berean, arlo horrek zenbait helburu eta eduki-multzo lantzen ditu. Lehenengo, *Jolasikas* webgunearen bitartez lantzen diren helburuak aipatuko dira:

- Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio egoerei aurre egiteko.
- Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, unean uneko komunikazio-premiei behar bezala erantzuteko.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.
- Norbaiten laguntzarekin norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -

estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako kompetentzia hobetzeko. (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 118)

Behin helburuak aztertuta, eduki-multzoei erreparatu behar zaie. Lan honetako proposamen didaktikoan, eduki-multzo eta beren baitako eduki jakin batzuk baino ez dira lantzen. Hurrengo lerroetan, *Jolasikas* webguneak lantzen dituen eduki-multzoak aipatuko dira eta lantzen diren edukien adibideren bat edo beste emango da:

- 1. multzoa. Eduki komunak: Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin uztarturik dauden edukiak dira, adibidez: “Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea)” eta “Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea”. (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 124)
- 2. multzoa. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea: Multzo honen baitan ahozko komunikazioari erreferentzia egiten dioten edukiak agertzen dira. Esate baterako: “Informazioa antolatzea, bilatzea, testuinguruan ipintzea eta berrikustea, ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta” eta “Ahozko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea”. (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 124-125)
- 3. multzoa. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea: Multzo honen barruan, ordea, idatzizko komunikazioari erreferentzia egiten dioten edukiak agertzen dira. Besteak beste, honako hauek lantzen ditu *Jolasikas*-ek: “Informazioa antolatzea, bilatzea, testuinguruan ipintzea eta berrikustea, idatzizko testuak ekoiztea helburu hartuta” eta “Idatzizko-testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea” (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 125)
- 5. multzoa. Hizkuntza eta bere erabilerei buruzko gogoeta: Genero testualekin, erregistro motekin eta hizkuntza-elementuekin lotutako edukiak topa daitezke bertan. Webguneak, besteak beste, honako hauek lantzen ditu: “Ahozko nahiz idatzizko testuetan oinarrizko kohesio-mekanismoak identifikatzea: denborazko lokailuak, izen-ordezkapenak eta puntuazio-markak” eta “Hizkuntzaren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun nagusiei

igartzea”. (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 2015: 126)

4.4. Erabilera

Jolasikas webgunean proposatzen diren jolas-jarduerak, batez ere, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan erabiltzeko baliabideak dira, diagnostikoa ere ziklo berean egin baita. Edozein hezitzailek ere erabil ditzake edozein adinetako ikasleekin, ez delako jarduera-ildo hertsia eta mugatua eman nahi. Hori bai, ikasleen hizkuntza-gaitasuna jardueren zailtasun-mailarekin bat etortzea eta, gutxienez, 10 bat ikasleko taldea izatea komenigarria da.

Jolas-jarduerak aurrera eramateko, gomendagarria da jolasa gauzatuko den lekua, iraupena, helburuak eta materialak (sarritan, orrialdean bertan agertzen diren bideoak edo irudiak dira) buruan edukitzea. Horietako gehienak jarduera bakoitzeko azalpen fitxaren goiko partean zehazten dira, beraz, beroriei erreparatu behar zaie. Bestalde, jolasaren lan-sekuentzia ‘Jardueraren garapena’ izeneko atalean era kronologiko, ordenatu eta sinplean azaltzen denez, berori jarraitu baino ez da egin behar. Edonola ere, hezitzaileek proposatutakoa ikasle-taldeko beharretara molda dezakete.

Azkenik, esan behar da ikasleek elkar komunika dezaketela webguneko txataren bidez. Era berean, euren kezkek eta zalantzak argitzeko eta ezer iradokitzeke iruzkinak egin ditzakete edo foroan idatz dezakete.

5. ONDORIOAK

Proposamena garatzeko, kontuan eduki da laneko azken ondorioa, jolastuz ikasteari aipu egiten dion hori, hain zuzen ere. Atal honetan, marko teorikoan landuriko zenbait kontzeptu eta norberaren ikuspegi hezitzailea galdetegiko emaitzekin uztartu dira. Azkenik, aintzat hartu behar da ondorioak inkesta burutu den testuinguruan kokatu behar direla, alegia, Bilboko ikastetxe kontzertatu eta erlijioso batean; beraz, ez dira edozein egoera soziokulturaletan aplikagarriak. Hona hemen:

Euskara eskola-ordutegian baino ez dute erabiltzen ikasleek: Egin den galdetegiko emaitzek islatzen duten bezala, ikasle gehienek euskara eskola-ordutegiaren barruko dinamiketan erabiltzen dute bakarrik. Horren aurrean, Cyr-ek (2000) aipatutako Rubin-en tipologiak (1989) zioen ikas-estrategia erabilgarriak direla “Ikasgelaz kanpoko hizkuntzari aurkeztua egotea (irratia, telebista, filmak, aldizkariak, egunkariak)” eta

“Hizkuntza erabiltzeko aukerak bilatzea (berezko hiztunekin berriketan aritzea; ospakizun sozio-kulturaletara joatea)”. Ildo beretik, Thompson-ek (2005) hauxe esan zuen hizkuntza-ikasle onen inguruan: “Good learners make their own opportunities, and find strategies for getting practice in using the language inside and outside the classroom”. Horrenbestez, garbi esan daiteke zeregin handia dagoela euskara eskolatik at bultzatzeko, neska-mutilek euskara gelan erabili beharreko erreminta hutsa bailitzan ikus ez dezaten.

Irakaslearen gidaritzapean eroso sentitzen dira: Galdetegiko emaitzek islatzen dutenaren arabera, ikasleek atsegin dute azalpenak jasotzea eta egin beharreko lana irakasleek bideratzea. Gainera, ikusi ahal izan da ikasleek euren kabuz ikastea atsegin ez dutela. Ikas-prozesuan autonomia handiagoz eta hobeto jarduteko, zenbait ikas-estrategia metakognitibo erabil ditzakete ikasleek, adibidez: aurre-planifikazioa, autogestioa, autorregulazioa eta autoebaluazioa (O’Malley eta Chamot (1990), Cyr-ek [2000] aipatua). Azken finean, irakasleen gidaritzaz-lana egokia eta beharrezkoa izan daiteke, baldin eta ikasleei autonomiaz jarduteko eta euren lana kudeatzeko aukerarik ematen bazaie.

Ikasleek nahiago dute ikus-entzunezko baliabideak erabiliz edo jolastuz ikasi jarduera tradizionalak eginez ikasi baino: Inkestako emaitzak aztertuta, ondoriozta daiteke ikasle askori ez zaizkiola euskara lantzeko ohiko jarduerak gustatzen. Zehatzago esanda, gramatika lantzeari, ariketa guztiak koadernoan idazteari eta testuliburu propioa izateari ikasle askok ez deritzo ondo. Aitzitik, galdetegiko emaitzen arabera ikasleek begi onez ikusten dituzte problemak ebatziz, ikus-entzunezko baliabideak erabiliz eta, batik bat, jolastuz ikastea bilatzen duten jarduerak. Horrenbestez, ikas-estilo zehatza da nagusi galdetegia egin zen ikas-taldearen artean. Izan ere, Wong-ek eta Nunan-ek (2011) honelaxe definitu zuten ikas-estilo zehatza: “These learners tend to like games, pictures, film, video, using cassettes, talking in pairs, and practicing English outside class.” alegia. Irakasleen interesa piztu egingo bada, beharrezkoa da ikus-entzunezko baliabideak kontuan hartzen dituzten jolas-jarduerak planteatzea ikasgela barruan.

6. BIBLIOGRAFIA

- 175/2007 Dekretua (2007/10/16) Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa. *EHA*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Vitoria-Gasteiz.
- Alonso, C., Gallego, D. eta Honey, P. (1994). *Los estilos de aprendizaje*. Mensajero, Bilbo.

- Cabrera J. S. eta G. Fariñas (2005). El estudio de los estilos de aprendizaje desde una perspectiva vigostkiana: una aproximación conceptual. *Revista Iberoamericana de Educación*, 37 (1), 6.
- Chamot, A. U. (2004). Issues in Language Learning Strategy Research and Teaching. *Electronic Journal of Foreign Language Teaching*. 1, 14-26. [Kontsulta: 2018-04-10ean]. Hemendik: <http://e-flt.nus.edu.sg/v1n12004/chamot.pdf>
- Cyr, P. (2000). *Estrategiak bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan* (itzulpena: Boni Urkizu). HABE, Donostia.
- Etxebarria, A. (2006). *Estrategiak euskararen ikaskuntzan eta irakaskuntzan* (Doktoretza-tesia). UD-DU, Bilbo.
- Eusko Jaurlaritzak (2015). *236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Vitoria-Gasteiz.
- Gértrudix, F. eta Gértrudix, M. (2013). Aprender jugando. Mundos inmersivos abiertos como espacios de aprendizaje de los y las jóvenes. *Revista de Estudios de Juventud*, (101), 123-137.
- HABE (2005). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteiz.
- Oxford, R. L. (2003a). Language learning styles and strategies: Concepts and relationships. *Iral*, 41(4), 271-278. [Kontsulta: 2018-05-20an] Hemendik: <https://pdfs.semanticscholar.org/0001/239c2fbdb4287410eaabd1c9f09f169b14e2.pdf>
- Oxford, R. L. (2003b). Language Learning Styles and Strategies: An Overview. *GALA (Generative Approaches to Language Acquisition)*. 1-25. [Kontsulta: 2018-04-10ean] Hemendik: [http://files.fernandamunoz.webnode.es/200000040-1816e19114/2003 Oxford R. Lang. learning styles and strategies.pdf](http://files.fernandamunoz.webnode.es/200000040-1816e19114/2003%20Oxford%20R.%20Lang.%20learning%20styles%20and%20strategies.pdf)
- Perales, J. (2003). Ezagutzeko eta ikasteko estiloak: gaia zertan den. *Hizpide: euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria*, 21(54), 18-28
- Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan, eta erabilera-ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (Doktoretza-tesia). UPV/EHU, Donostia.
- Richards, J. C. (2005). *Communicative language teaching today*. SEAMEO Regional Language Centre.
- Thompson, S. (2005). *The 'Good Language Learner'*. University of Birmingham. [Kontsulta: 2018-03-27an]. Hemendik: <https://www.birmingham.ac.uk/Documents/college-artslaw/cels/essays/secondlanguage/essayGLLSThompson.pdf>
- Tornero, Y. (2009). *Las actividades lúdicas en la clase de E/LE*. Edinumen. Madril.
- Wegner, C., Minnaert, L., eta Strehlke, F. (2013). The Importance of Learning Strategies and How the Project "Kolumbus-Kids" Promotes Them Successfully. *European Journal of Science and Mathematics Education*, 1(3), 137-143.
- Wong, L.L. eta Nunan, D. (2011). The learning styles and strategies of effective language learners. *System*, 39 (2), 144-163.